

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 55. alea

DATA: 2025/11/28

GUREAN

EGIN EUSKARAZ!

Asteazkenean DBHko 4. mailako hainbat ikasle Larratxoko Kultur etxera hurbildu ziren Mintzodromoan parte hartzera. Abenduaren 3an Euskararen eguna dela eta, euskararen erabilera kaleetara eramatea du helburu Mintzodromoak. Partaideak lauko taldeetan eseri ziren mahai baten inguruan eta interes orokorreko gaiet buruz hitz egin zuten. Gai bakoitzari 15 minutu eskaintzen zaizkio eta, denbora amaituta, pertsonak mahaiz aldatzen dira. Ederki pasatu zuten eta Euskararen eguna ospatzen jarraituko dugu datorren astean, noski. Urtero bezala, antolatzaileak Bizarrain Euskara Elkarte eta Donostia Kultura izan dira.



GURE INGURUAN

ITSAS HONDAKIN MAKROBILKETA

NOIZ: AZAROAK 29

NON: GIPUZKOAKO KOSTALDEA

MATER Ontzi Museo Ekoaktiboak antolatuta eta Itsas Zaintza Sarea proiektuaren baitan, larunbat honetan egingo da Itsas Hondakin Makrobilketa. Ekintzak 11:00etatik 13:00etara egingo dira Gipuzkoako kostaldeko hainbat tokitan: Deba, Zumaia, Zarautz, Donostia, Pasaia eta Hondarribian. Ekimen honen bidez, itsasoa eta hondartzetatik plastiko eta bestelako hondakinak jaso nahi dira, hondakin metaketa handiena duten puntu estrategikoetan esku hartuz.



BAZENEKITEN?

GABONETAKO ARGIAK GAUR PIZTUKO DIRELA DONOSTIAN?



Gaur 19:30ean Gabonetako argiak piztuko dira. 500 droneren laguntzarekin Donostiako zerua argituko da eta Flock Drone Art Studiok diseinatutako ikuskizunak hiriko historia errespasatuko du.



AZAROAK 25. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunarekin bat egin genuen ikastolan.

